

Ezkimoaren mezüa

1. zikloa

Idazlea : Francoise Richard eta Thomas de Coster

Euskarazko ützülpena : Maialen Videgain

Egokipena : Jean Louis Davant

Aintzin lana : Ipar Poloaren ezagütza

1. sekuentzia : albumean sartzea

2. sekuentzia : 3-11 orrildeak

3. sekuentzia : 10-11 orrialdeko mezüa

4. sekuentzia : 12-27 orrialdeak

5. sekuentzia : 28-35 orrialdeak

Hedapenak : mezü baten idazketa

Artikülü baten idazketa (Agur Xiberoa aldizkarian)

Inuit musikaren ezagüpena (dantza baten asmaketa)

Aintzin lana

Helbürüa : Mündü zabaleko bizizale zonbaiten ezagütza : Ipar Poloko bizizaleak

Materiala :Mauleko libürütegiko 3 libürü dokümentario

Antolaketa :

- ikasleak 3 taldeetan bana (adinak nahasirik) eta talde bakotxari libürü bat eman. Talde bakotxak behar dü üken düan libürüa aztertü (üdürüak lantüz bereziki eta mapak), besteer presentaketa baten egiteko.
- 3 taldeek beren aurkezpena egin eta, mündüko mapan Ipar Poloa kokatzen da eta Euskal Herria ere aipatzen da, distantzia handien lantzeko.
- Bildü informazio güzia jüntatzen da bilan bat eginez ahoz eta gehitüaren diktaketaren bidez idazten da afitxa handi baten gainean.

1. sekuentzia : albumean sartzea

Helbürüa : libürü batean kanpoko informazien irakurten trebatü (üdürietan eta idatzian)
Libürü bati doakion hiztegi bereziaren menperatzen hasi

Materiala : libürü bat 2 ikasleentako (ttipi bat handi batekin)

Hedapena :

- libürüaren axala aztertü : üdüriak, izenbürüa, idazleen izenak lehenik binaka eta ondotik talde handian
- kontrazala aztertü ber manerala
- agiri fitxa bat eraiki libürüarentako : izenbürüa, idazlea, ützültzailea, egokitzailea, editorea, kolekzioa.

2.sekuentzia: 3-11 orrialdeak

helburua: ulermenaren lantzeko, uduriaren eta textoaren indizeen erabilten ikasi.
Ipuin baten irakurketa behatu eta plazera hartu. Liburuen maitatzen ikasi.

Materiala: liburu bat biontako

Hedapena:

- orrialde bakoitzean, uduria aztertutako eta deskribatutako eta idatzian ezagutzen diren hitz eta letrak izentatu.
- Horren ondoren hipotesiak egin istoriari buruz.
- Hipotesiak irrentu eta, orrialdeko testoa irakurri erakasleak.
- Hipotesiak eta egiazko istoria konparatu
- ondoko orrialdera igar eta ber ibilbidea jarraiki.

3.sekuentzia: 10-11 orrialdeko mezüa

helbürüa: mezüaren kode sistema entelegatü eta interpretatü (idatziaz kanpoko beste komunikazio manera bat), manera hortako mezü baten eraikitze berantago (ikus hedapena). Hipotesiak egin üdüriak so eginez.

Materiala: libürü bat bientako eta mezüa afitxa batean handitürük arbelean.

Hedapena:

- 3-11 orrialdeetan irakurri istoria arra aipatü eta ahozko labürpen bat egin
- binaka mezüa so egin libürüan;
“ üdüri bakotxa so egin eta deskribatü behar da, Kautahuki agitzen zaiona agertzen beita“(konsina).
- talde handian komentarioak egin: Kautahuken abentürak asmatü üdürrien bidez.
- Gehitüaren diktaketaren bidez, afitxa handian, üdüri bakotxaren pean erranaldi bat idatzi.

4. sekuentzia: 12-27 orrialdeak

helbürüa: ulermenaren lantzeko, üdürrien eta textoaren indizeen erabilten ikasi.
Ipuin baten irakurketa behatü eta plazera hartü. Libürrien maitatzen ikasi.

Materiala: libürü bat bientako

Hedapena:

- aintzineko sekuentzian asmatü erranaldiak arra irakurri
- orrialde bakotxean, üdürria aztertü eta deskribatü eta idatzian ezagützen diren hitz eta letrak izentatü.
- Horren ondotik hipotesiak egin istoriari bürüz.
- Hipotesiak ürrentü eta, orrialdeko textoa irakurri erakasleak.
- Hipotesiak eta egiazko istoria konparatü
- ondoko orrialdera igan eta ber ibilbidea jarraiki.
- Aintzineko sekuentzian egin lana (mezüaren interpretatzea) ontsa eginik izan da?
Kautahukek ontsa marrazten düa ala hobe da gü bezala idazten ikas dezan?

5. sekuentzia: 28-35 orrialdeak

helbürüa: ulermenaren lantzeko, üdürrien eta textoareen indizeen erabilten ikasi.
Ipuin baten irakurketa behatü eta plazera hartü. Libürüen maitatzen ikasi.

Materiala: libürü bat bientako

Hedapena:

- **28-29 orrialdeak:** 29 orrialdeko mezüa deskribatü, komentatü eta interpretatü oroen artean.
- Erranaldi bat idatzi üdüri bakotxaren pean
- Ondotik, 28 orrialdeko textoa irakurri eta mezüaren interpretazioarekin konparatü
- **30-35 orrialdeak:** orrialde bakotxean, üdüria aztertü eta deskribatü eta idatzian ezagützen diren hitz eta letrak izentatü.
- Horren ondotik hipotesiak egin istoriari bürüz.
- Hipotesiak ürrentü eta, orrialdeko textoa irakurri erakasleak.
- Hipotesiak eta egiazko istoria konparatü
- ondoko orrialdera igan eta ber ibilbidea jarraiki.